

## LEHIAKETAK

Azken Agurra gutun sariketa • Lanak bidaltzeko epea urriaren 11n amaituko da

Testamentu lehiaketa  
orijinala Ondarroan

ERA askotako lehiaketak antolatzen dira Euskal Herrian, eta horietako ugari euskaraz. Ondarroan oso lehiaketa bitxia jarri dute martxan, testamentu edo behin betiko agurraren gutun lehiaketa.

Hauk dira lehiaketako oinarriak:

-Idazlanek euskaraz beharko dute izan, batuan nahiz euskalkian.

-Parte hartzeko ez dago adin mugarik.

-Lanek argitaratu gabeak, saritu gabekoak eta orijinalak beharko dute izan.

-Idazkiek testamentu edo behin betiko agur gutunaren formaz izatea hobetsiko da.

-DIN A4 formatuan bidali behar dira. Idazlanari lelo bat jarri eta goitizenez sinatu behar da. Datu pertsonalak aparteko gutunazal batetan sartu behar dira.


-Ezin dira bi orrialdetik gorakoak izan.

-Lanak e-mailaz bidal daitetzeke: bolobolo@sarenet.es; edo postaz: Ondarroako Udala/ Azken Agurra lehiaketa / Euskara Zerbitzua / 48700 Ondarroa.

Sariei dagokienez, bi sari egongo dira: Euskal Herriko onenari bata eta Ondarroako onenari bestea. Bakoitzari 25.000 pezeta (mila libera) eta Bolo oroigarri bat eman go zaio. Epaimahaikideen esku egongo da akzestien bat gehitzea. Kultura munduko hiruzpalau adituk osatuko dute epaimahia. Sari banaketa Ondarroako kofradia zaharraren aurrean egingo da, azaroaren leian.

Argibide gehiago nahi izanez gero 94-4336537 telefonora dei dezakezue.

**Urtzi Urkizu**  
DONOSTIA



MIRIAM GARTZIA

Ondarroako Bolo Bolok azken agurreko gutun lehiaketa antolatutako euskaldun ororentzat. Argazkian elkarteko Lore Bengoetxea kidea.

reierntziatik abiatuta, azken hamarkadetako irakaskuntzaren bilakaera erakusten duen erakusketa. Xenpelar Udal erakusketa aretoan (Niessen), irailaren 20tik urriaren 3a arte.

## GALDAKAO

► **Sahara bihotzean.** Argazki erakusketa, Udal Euskaltegiko lokalean, irailaren 18a arte.

## GARAPE

► **Ekialdetik Mendebaldera.** Stephane Duroyren lanak, Enkarterrietako museoan, irailaren 30a arte.

## GASTEIZ

► **Germen.** Erakusketa kolektiboa Zuloan, azaroaren 3a arte.

## GERNIKA-LUMO

► **Lanak eta egunak.** Ramon Serrasen argazki erakusketa, Euskal Herria museoan, irailaren 30a arte.

► **Iaona Dome Iacue. Donejakue bidea Bizkaian.** Euskal Herria museoan, irailaren 26a arte.

## GORLIZ

► **Ertibil 99.** Erakusketa aretoan, irailaren 20a arte.

## HONDARRIBIA

► **Alfredo Bikondoa eta Susana Zaldivarren pinturak.** Higuier galerian, irailaren 19a arte.

## LASARTE

► **Lasarte-Mitxelín arraun taldea.** Jalgi kafe antzokian, irailaren 15a arte.

## LEGAZPI

► **Langileak Jauregian!** Argazki erakusketa, Biku a jauregian, irailaren 30a arte.

## MIARRITZE

► **Latinoamerikako arte garai-kidearen bilduma, Caracas-ko Arte Ederretako museoak utzia.** Berllevueko erakusgunean, urriaren 3a arte.

## ORDIZIA

► **Euskal Pilota Jokua.** Barrena kultur etxeko erakusketa aretoan.

► **Jesus Jauregiren lanak.** Barrena kultur etxeko erakusketa aretoan.

## ORIO

► **Patxi-Txikiren pinturak.** Kultur etxean, irailaren 14a arte.

## ORTUELLA

► **Jorge Garcaren marrazkiak.** Irailaren 23a arte.

## SESTAO

► **Maria Carmen Requejo Garcaren pinturak.** Erakusketa aretoan, irailaren 20a arte.

## ZARAUZ

► **Fidel Rasok Ekuadorren ateratako argazkiak.** Photomuseumean, irailaren 16a arte.

## MUSIKA

## BILBO

► **Bilboko Udal Banda.** Arenalean, 12:30etan.

## DONOSTIA

► **Trikitilari gazteen lehiaketa.** Konstituzio plazan, 18:30etan.  
► **Silvio Rodriguez eta Luis Eduardo Aute.** Belodromoan, 20:30etan.

## ELORRIO

► **Leioako Musika Banda.** Plazan, 13:00etan.

## OIARTZUN

► **Arragirre eta bere taldea.** Ergoingo Pagoa jatetxeko kontzertu aretoan, 19:30etatik 00:30etara.

## ORDIZIA

► **Trikitilariak.** Oiangun, 13:30etatik 14:30etara eta 19:00etatik 21:00etara. Erromeria Oiangurengo udal zelaietan.

## SANTURTZI

► **Los Pamplonicas.** Jotak 19:30etatik aurrera. Mamariga jaien azken eguna.

## SARA

► **Alaitz eta Maider.** Gaueko 22:30etan.

## URDULIZ

► **Agirre nebarrebak.** Sardinada

herrikoia alaituz, arratsaldeko 20:00etan.

## ZIZURKIL

► **Betagarri, Bi Kate, Black Jiko.** Gaueko 22:00etan.

## ZUMAIA

► **Muxutruk.** Eusebio Gurrutxaga plazan, 18:30etatik 21:00etara.

## ANTZERKIA

## BARAKALDO

► **Entre bobos anda el juego.** Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionala, 20:00etan.

## BILBO

► **El buf n del rey.** Moncho Borrajorekin, Ayala Antzokian, 20:00etan. Azken eguna.

## DONOSTIA

► **Se infiel...y no mires con qui n.** Victoria Eugenia Antzokian, 20:00etan eta 22:30etan. Azken eguna.

## DANTZA

## ELORRIO

► **Ekaitza taldea.** Herriko plazan, 19:00etan.

## MIARRITZE

► **Giselle.** Scottish Balletaren eskutik, Gare Du Midin, arratsaldeko 17:00etan.

## ORDIZIA

► **Bikoteen arteko haurren mailako dantza solteko txapelketaren finala.** Oiangun, 12:00etan. Helduen txapelketa 17:30etan.

## ZESTOA

► **Ereintza dantza taldea.** Arratsaldeko 18:00etan herriko plazan.

## BERTSOLARITZA

## MUTILOA

► **Zeberio eta Gorrotxategi.** Egurdiz eta arratsaldez, Lierinin.

## OIZ

► **Andoni Ega a eta Sebastian Lizaso.** Egurdian eta arratsaldean.

## ZERAIN

► **Joxe Agirre eta Patxi Etxeberria.** Egurdiko 12:00etan.

## ERAKUSKETAK

## BEASAIN

► **Enrique Velazquezen lanak.** Aterpe tabernan, irailaren 30a arte.

## BERA

► **Zinegileak: Euskal Herriko zinearen historia.** Kultur etxean, irailaren 18a arte.

## BILBO

► **Cantos del desierto (1979-1999).** Richard Misrachen lanak, Rekalde aretoan, urriaren 12a arte.

► **Euskal Txirrindularitzaren 100 urte.** Euskal Museoan, urriaren 17a arte.

## DEBA

► **Alfredo Pueyesen grabatuak.** Aitor tabernan, irailaren 15a arte.

## DONOSTIA

► **Kazetaritzako argazkigintzaren mende oso bat.** Kutxa-ko Garibai aretoetan, irailaren 26a arte.

## DURANGO

► **Adentros 2.** Teresa Herreroren argazkiak, Arte eta Historia museoan, irailaren 26a arte.

## EIBAR

► **Sarajevoko sei artisten margo erakusketa.** Portaleko erakusketa aretoan, irailaren 26a arte.  
► **Club Deportivo-ko argazki taldearen erakusketa.** Portaleko erakusketa aretoan, irailaren 26a arte.

## ERMUA

► **Herriko argazki zaharren erakusketa.** Infre u tabernan, irailaren 15a arte.

## ERRENTERIA

► **Orereta Ikastolaren espe-**